

2018. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2017ko abenduaren 22an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2017/12/29. 247. zk., 6. zatia. Akats zuzenketak BAO 2018/01/24. 17 zk.

## **ORDENANTZA FISKALA, UDAL HILERRIAREN TASEA ARAUTZEN DAUENA**

### **1. artikulua. OINARRIA ETA IZAEREA**

Tokiko Ogasunen 5/89 Foru Arauaren 2. eta 20. artikuluetan ezarritakoagaz bat etorrira, udal honek Udal Hilerriaren Tasea eskatuko dau.

### **2. artikulua. ZERGA EGITATEA**

Tasa honetako zerga egitatea Udal Hilerriko zerbitzuak emotea da eta baita nitxo,panteoi eta hilobientzat terrenoaren adjudikazioak ere, besteak beste:

\* Nitxo, panteoi edo hilobietan hilobiratzea (Hilobi eskubideak).

\* Gorpuak txikitzea edo lekuz aldatzea.

\* Heriotza-Poliziaren Erregelamentuak emondako bestelako edozein zerbitzu, bai egokia danean, bai alde batek eskatuta baimentzen danean.

### **3. artikulua. SALBUESPEN SUBJEKTIBOAK**

Salbuetsita egongo dira, udalaren gizarte zerbitzuek ehortzitakoek gaudimenik ez daukiela egiaztatzen dauen txostena eginda, gaudimenik bako pertsona horreek ehorzteko zerbitzuak.

### **4. artikulua: TASA KUOTEA**

Tasa kuotea honako tarifa honeek aplikatuta finkatuko da:

	2018
1- Epigrafea: Gorpua hilobiratzeko lizentzia :	
1.1- Panteoian .....	201,84 €
1.2- Hilobian .....	140,97 €
1.3- Hilobiratze nitxoan.....	110,22 €
1.4- Kendutako gorputz zatia hilobiratzea.....	17,29 €
1.5- Abortuetako umekiak .....	17,74 €
1.6- Erretako gorpua.....	17,74 €
2- Epigrafea: Gorpuzkinak txikitu eta lekuz aldatzea:	
2.1- Euren hilobian barriri jarri gorpuzkinak txikitzea	32,25 €
2.2- Euren barik beste hilobi batean jarrita gorpuzkinak txikitzea	48,88 €
2.3- Gorpuzkinentzako nitxoetan edo hazurtegi jarri gorpuzkinak txikitzea	48,88 €
2.4- Hondino gai organikoak daukiezalako, gorpuzkinak txikitu aurretik eginiko lanak	107,99 €
2.5- Udal hilerritik kanpora eroateko, gorpuzkinak txikitzea	24,36 €

2.6- Aurretiaz txikitutako gorpuzkinak beste hilobi batera edo udalerritik kanpora eroateko hilobia altzetea	19,18 €
2.7- Beste hilerri batzuetatik ekarritako gorpuzkinak hilobiratzea	19,18 €
2.8- Euren hilobian barriri jarri gorpuzkinak txikitzea, erretzea edota haustu	65,05 €
2.9- Euren barik beste hilobi batean jarrita gorpuzkinak txikitzea, erretzea edota haustu	81,17 €
2.10 Gorpuzkinentzako nitxoetan edo hazurtegian jarri gorpuzkinak txikitzea, erretzea edota haustu	81,17 €
2.11- Udal hileritik kanpora eroateko, gorpuzkinak txikitzea, erretzea edota haustu	57,37 €
2.12- Aurretiaz txikitutako gorpuzkinak erretzea edota haustu beste hilobi batera, hileritik kanpora edo udalerritik kanpora eroateko	52,35 €
2.13- Beste hilerri batzuetatik ekarritako gorpuzkinak erre edota haustu eta hilobiratzea	52,35 €
3- Epigrafea: Eskualdatzeak:	
3.1- Panteoiarena:	
3.1.1- Dohaintza.....	549,06 €
3.1.2- Oinordeko bakar baten aldeko jaraunspe	549,06 €
3.1.3-Jaraunspenez, besteek uko eginda, oinordeko baten alde geratzen danean	1.098,11 €
3.1.4-Ganerako eskualdatzeak .....	2.196,24 €
3.2- Hilobiarena:	
3.2.1 Dohaintza.....	275,19 €
3.2.2- Oinordeko bakar baten aldeko jaraunspena	275,19 €
3.2.3- Jaraunspenez, besteek uko eginda, oinordeko baten alde geratzen danean.....	
3.2.4-Ganerako eskualdatzeak .....	1.100,80 €
3.3- Nitxoena.....	103,90 €
3.4- Hazurtegiarena.....	10,43 €
4- Epigrafea: Kontzesinoak	
4.1- Nitxoa	203,85 €
4.2- Hazurtegi nitxoa	18,34 €
4.3- Hilobia	5.149,44 €
4.4- Panteoia	20.597,74 €

Kontuan eduki behar da kopuru hauek enkante baten bitartez hobetu beharra egotea litekeena dela, terrenoak baino terrenoaren eskariak handiagoak badira

## 5. artikulua. SORTZAPENA

Tasea ordaindu beharra sortuko da karga daukien zerbitzuak emoten hasten diranean, eta horretarako zerbitzuak hasten dirala ulertuko da zerbitzuak emoteko eskabidea egindakoan.

## **6. artikulua.ORDAINKETAK**

1. Subjektu pasiboek zerbitzuak emoteko eskaerea egingo dabe.
2. Zerbitzu bakoitzean banakako aparteko kitapena egingo da tarifa egoki bakoitzea aplikatuta.

Kitatu beharreko kontzeptu bat baino gehiago balego, kontzeptuok ordainagiri baten bialduko dira.

3. Aurreko tarifen aplikazioari jagokozan kuotak zerbitzuaren eskabidea egiten dan momentuan ordainduko dira auto-ordainketaren edo zuzeneko ordainketaren kitapenaren modalidadearen bitartez. Horretarako, udal hilerriko arduradunak egunean eskatutako zerbitzuen zerrrendea aurkeztuko dau Errenta Sailean, honako datu honeek zehatz eta beren beregi adierazota:

- Zerbitzua egiten dauen ehorztetxea.
- Hilobiaren emakidaduna edo zerbitzua eskatzen dauen senidea.
- Zerbitzu muetak, tarifa banaketaren arabera.
- Hilobiratzeko hilobi muetak.
- Hilobiratutako pertsonaren izena.
- Zerbitzua emon dan eguna eta ordua.

## **7. artikulua. SUBJEKTU PASIBOA**

Zerbitzua emoteko eskabidea egiten dauen pertsona fisikoa edo juridikoa eta bai lizentzia edo emakidak jasoten dituen pertsonak edo erabilera onuradunak, baimenik barik gauzatu badira ere, izango dira tasearen subjektu pasiboa.

### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza honetan beren beregi araututa ez dagoanaren inguruan, udal honek onetsitako Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskapenaren Ordenantza Nagusian eta aplikatzekoa dan legerian ezarritakoa bete beharko da.

### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau behin betiko onetsi eban Udalbatzak 2000ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran, eta haren aldaketak 2000ko abenduaren 30ean argitaratu ziran BAOren 251. alean. Halanda ze, 2001/01/01ean sartu zan indarrean eta indarrean jarraituko dau harik eta beren beregi aldatu edo indarririk barik itxi arte.